



<b>LEKUA: Eusko Jaurlaritzako Lakua II eraikineko 6. aretoa</b>	<b>ADINEKOEN KONTSEILU SEKTORIALAREN bilerako akta</b>	<b>EGUNA: 2017.06.07</b>
		<b>ORDUA: 10:00 h</b>
<b>Etorritako AKSko kideak</b>		
<b>Eusko Jaurlaritza</b>		
ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA	Lide Amilibia Emilio Sola	
OSASUN SAILA	Guillermo Viñegra	
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA	Mario Yoldi	
EMAKUNDE	Haizea Miranda	
<b>Foru-aldundiak</b>		
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Txaro Rodrigo	
<b>EUDEL</b>		
GIPUZKOA	Lourdes Acevedo	
<b>Adineko Pertsonen Erakundeak</b>		
EUSKOFEDERPEN	Txema Odriozola.	
LAS CUATRO TORRES	Antonio González	
AGIJUPEN	José Riviere	
NAGUSILAN	José Luis Elosua.	
HELDUAK ADI!	Antonio Campos	
FAE	Koldo Aulestia	
BIZITZEN FUNDAZIOA	Izko Cardenal	
<b>Erakunde gonbidatua</b>		
3D SOCIAL MOVEMENT	Beatriz Gázquez	
<b>Ezin etorria adierazi duten AKSko kideak</b>		
PSIKOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA	Gloria Martin	
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	Sergio Murillo	
<b>Etorri ez diren AKSko kideak</b>		
HEZKUNTZA SAILA	Lucia Torrealday	
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA	Imanol Agote	
ARABAKO FORU ALDUNDIA	Miren Saratxaga	
EUDEL ARABA	Natividad López	
EUDEL BIZKAIA	Josu Bergara	
NAGUSIAK	Roberto Martinez	



LARES EUSKADI

Jose Ignacio del Pozo

GIZARTE LANEKO ELKARGO OFIZIALA

Olatz Etxabe.

**LANDUTAKO GAIAK**

Gizarte Politiketako sailburuorde **Lide Amilibiak** ongiatorria adierazi eta etorri izana eskertu die bertan diren guztiei, lan-saioari ekinez 10:10 direla.

**1. Kontseiluko kideen aurkezpena eta harrera.**

**Lide Amilibiak** proposatu du kontseilura iritsi berri diren pertsonak ezagutzeko aurkezpen erronda bat egitea, eta bidenabar izendatzeko Idoia Ebro idazkari berria, erretiroa hartu eta kargua utziko duen Josune Oiarbideren ordeaz ariko baita.

Bertaratu direnak aurkeztu ondoren, gai-zerrendako hurrengo puntuari heldu zaio.

**2. Aurreko bileraren (2015eko abenduak 3) akta onartzea.**

**Lide Amilibiak** esan du akats txiki bat atzeman dela aktako 5. orrialdean, 4. puntuan: 2005 dioen lekuan 2015 behar zuen. Bidenabar adierazi nahi izan du interesgarria dela aldian behin elkartzeko dinamika berreskuratzea.

**Txema Odriozolak** adierazi du aurreko bilerara joan zela eta ez dela aktan ageri. Eta erantsi du aktan ez dagoela osorik 7. puntuari dagokiona. **Emilio Solak** argitu du Odriozola jauna ez zela izan Kontseiluaren bileran, bilera tekniko batean baizik. Beste gaiari dagokionez, 7. puntua, funtsean, beste bilera baten aipamen txiki bat, besterik ez da. Horregatik ageri da laburbilduta.

Aldaketa horiek jasotzeko konpromisoa hartuta, eta kontrako beste iritzirik ez dagoelarik, aurreko bilerako akta onartutzat eman da.

Ondoren, **Lide Amilibiak** jakinarazi du Kontseiluko azken bileraren ondoren landu diren adinekoen arloko gai askoren arteko bat dela Eusko Legebiltzarrean, legez kanpoko proposamen batean, 2017ko otsailaren 9an, premia eskatu zitzaioela gobernuari adinekoen egoitzen dekretua

eguneratzeko, orain egoitza-zerbitzu mota hori erabiltzen ari diren adineko pertsonen profil berrien arabera egokitu ahal izateko.

Lanean aritu dira gainerako instituzioekin, aldundiekin eta EUDELekin, batez ere, eta oinarrizko testu bat adostu dute, Irekian esekiko dena, herritarrek ezagutu dezaten.

### 3. **Gobernantza +65 ekimenaren gaineko informazioa**

**Beatriz Gázquezek** aurkeztu du Zahartze Aktiboko Euskal Estrategia 2015-2020 planaren 1. ardatzean kokatzen den ekimen hori: *Gizartearen egokitzapena zahartzearen inguruan. Gobernantza-eredu berri bat.*

Ekimenaren aurkezpeneko hitzaldia iraupen luzekoa eta transkripzio zailekoa denez, power point formatuan helarazi zaie etorritakoei.

**Lide Amilibiak** proposatu du gai-zerrendako hurrengo puntuarekin jarraitzeko, aurrekoarekin estu lotua dagoelako, eta galderak aurkezpen berri horren amaierarako uzteko.

### 4. **Euskadi Lagunkoia Diagnostikoaren aurkezpena.**

**Emilio Solak** aurkeztu du Euskadi Lagunkoia ekimena. Kasu honetan ere ez da transkripziorik jaso eta hau ere igorriko zaie etorritako pertsonei.

Aurkezpena amaitu ondoren, hitzen txanda ireki du **Lide Amilibiak**.

**Txema Odriozolak** Beatriz Gázquezi *Gobernantza +65* ekimeneko lantaldeetan aritu ziren pertsonen batez besteko adinari buruz galdetu dio, haietako batzuek ez zutelako “ideiarik ere” adinekoen inguruan. Beste gai baten aipamen/gogoeta ere egin dio Beatrizi, alegia, ekimen horretan planteatzen den ereduari buruz, esanez hurbilago dagoela demokrazia parte-hartzaitetik berak aurkezpenean aipatu duen demokrazia ordezkatzaitetik baino.

**Beatriz Gázquezek**, lehenengoari erantzunez, adierazi du bilatu zela prozesu oso hibrido bat sortzea, non elkartuko ziren askotariko interesak eta pertsonak. Interesgarritzat jo zen profil desberdinetako pertsonekin kontaktzea, bestelako ikuspegiak jasotzeko, jardun endogamikoan erortzea saihestuz.

Bigarren iruzkinari buruz esan du demokrazia ordezkataile batean gaudela eta horregatik aipatu behar zuela.

**Txema Odriozolak** gogoeta egin du politikarien eta administratuen arteko hurbiltasunaren inguruan, eta asko aurreratzen ari dela esan du.

**Lide Amilibiak** eredu parte-hartzaile horren adibide bat jarri du. Egoitzen dekretua Irekira igo da; herritarren parte hartzerako plataforma da, edonork eman ditzan iritziak, iruzkinak, iradokizunak, etab.; ziurrenik, halakoak egin dituzten pertsonak gaiari buruzko ezagutzak izango dituzte. Horregatik da hain garrantzitsua Beatriz Gázquezek bere aurkezpenean aipatzen zuen gaikuntzaren gaia.

**José Luis Elosuak** planteatu du kontu handiz hartu behar dela ezagutzen gaia. Adineko pertsonok, beharbada, ez dugu ezagutzarik izango, baina badakigu zer behar dugun. Izan ere, ezagutza besterik ez bagenu gogoan, guztia pertsona teknikoen eskuetan egongo litzateke.

Parte-hartzeari dagokionez, haren ustez “politikariek oraindik ez dute ulertu. Proiektua egin ondoren galdetu digute haren inguruan. Parte hartzea hasieratik lotu behar da. Azken erabakia politikariek dute, baina betiere adinekoei iritzia eskatu ondoren”.

**Emilio Solak** adierazi du erabat ados dagoela Jose Luisek azaldutakoarekin, eta erantsi du elkartze-mugimendua den aldetik, adinekoen erakundeak “bazaretela” hirugarren sektore soziala. Hirugarren Sektoreko legea aipatu du esanez parte-hartzea planteatzen duela fase guztietan, politiken eta programen diseinutik beretik hasita.

**Beatriz Gázquezek** erantsi du, ezagutzarekin lotuta, funtsezkoa dela gaikuntza ematea, ezagutzaz hornitzea adineko pertsonak, hain zuzen ere, guztia ez uzteko profesionalen esku.

**Koldo Aulestiak** adierazi du, pertsona ahulen parte-hartzeari buruz ari dela, haien erritmoak hartu behar direla kontuan, eta funtsezkoa dela haien arabera egokitzea.

**Antonio Camposek** adierazi du parte-hartzea gero eta zailagoa dela. Elkarrekin herritarren % 29 hartzen dute, baina % 71k ez du parte hartzen. Haren iritziz, gai bat gakoa da, alegia, erretiro-aldirako prestakuntza, denbora labur barne erretiroa hartu behar duten pertsonak adinekoen mugimendu horietara

biltzeko aukera izan dezaten.

**Txema Odriozolak** adierazi du, elkartze-mugimenduaren inguruan, Euskadi izango dela mugimendu handieneko lurraldea. Eta adin-kontuari buruz ari dela dio modako dagoela *silver ekonomia* delakoa, adinekoei begiratzen diena aukeren ikuspegitik.

**Emilio Solak** erantsi du zailtasunak daudela belaunaldi-arteko taldeak eratzeko, gazteen parte-hartze eskasagatik Zaila da etorkizuneko errelebo bati begirako parte-hartzea.

*Silver economy* delakoa Zahartze Aktiboko Euskal Estrategian dago, 1. ardatzean: *Gizartearen egokitzapena zahartzearen inguruan. Gobernantza-eredu berri bat*. Adituek aurreratzen dute kosta egingo dela merkatua mentalizatzea; ildo horretatik, aurrerapenak oso motelak izaten ari dira.

**Txema Odriozolak**, Osasun Saileko ordezkari Guillermo Viñegrari aipatu zion etxean erortzen diren adineko pertsonen gaia.

**Koldo Aulestiak** uste du boluntariotzaren gaia indartzeko ezinbestekoa dela boluntarioen ekarpenaren balorazio ekonomikoa egitea. Ez dira baloratzen pertsona boluntario "adituen" ekarpena eta ezagutzak. Ekarpen hori ez da kuantifikatzen. Lehentasunezkoa da baloratzea eta administrazioak hori gogoan izatea lehiaketetan, hitzarmenetan, etab.

**Emilio Solak** hizpidera ekarri du diapositiba txundigarri bat, hirugarren sektore soziala jasoz azaltzen duena bertan biltzen direla 350 erakunde, 35.000 langile eta 125.000 boluntario, eta EAEko BPGaren % 2,2 inguru dela hori.

Horrez gain, azaldu du lana ez dela Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailean bakarrik zentratzen, eta beste sail batzuekin ari direla lanean, benetan zeharkakoa izango den emaitza lortzeko.

**Txema Odriozolak** adierazi du boluntario asko dagoela, gauzak egiteko gogoia duen jende asko dagoela, komunitateetan ere bai. Auzolan espiritu hori oso garrantzitsua da Euskadin.

**Lide Amilibiak** erantsi du Hirugarren Sektore Sozialaren Estrategian ere lanean ari direla.

**Txema Odriozolak** dio jendeak ez dakiela zer den hirugarren sektorea eta interesgarria izango litzatekeela gizartean horren berri zabaltzea. Ildo

horretatik, **Emilio Solak** adierazi du gauza bera gertatzen dela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin. **Txema Odriozolak** proposatu du dokumentu xumeago bat egitea gai hauek azaltzeko.

**Jose Luis Elosuak**, boluntariotzaren gaiarekin jarraituz, adierazi du boluntario gehiago behar direla, gizarteak dituen beharrak betetzera ez direlako iristen. Boluntariotza sustatzeko pizgarriak bilatu behar dira. Gizartea motibatu behar da, pertsonak animatu, beren denbora librearen zati bat eskain dezaten. Ildo horretatik, adierazi du bere erakundea komunikazio-plan bat lantzen ari dela, herritarrengana helarazteko gizartearekiko betebeharrak bat dutela, eta boluntariotzaren balioa sustatzeko.

**Emilio Sola** ados dago erretiroaren prestakuntza gai garrantzitsua dela, eta erantsi du lanaren munduan ere antzeko gauza bat gertatzen dela, ezagutzaren transmisioari dagokionez. Garrantzitsua da ezagutzaren transmisioa bermatzea, galtzera ez uzteko.

**Koldo Aulestiak** kontzientziazioa aipatu du. Gizarte zibila da ekimen hauek bultzatu behar dituenak, lan hori egin behar duena, eta ez diola administrazioari egiteko eskatu behar.

**Beatriz Gázquezek** gogorarazi du “boluntariotza hezi” egin behar dela. Umetatik hasi beharko litzateke hezkuntzan lantzen gizartearekiko ardurakidetzak lantzen.

**Gillermo Viñegrak** esan du parte-hartzearen arazoa, arlo honetan, ez dela beste arlo batzuetan gertatzen denaren oso bestelakoa. Beti pertsona berek parte hartzen dute. Politika publikoak beharrezkoak dira, gizarte zibila aurretik ibili arren.

Kontuan hartu behar da bilakaera demografikoa, zahartzea eta haren ondorioak. 2030erako herritarren ia % 30 izango dira 65 urtetik gorakoak, eta horrek osasunean, gizartean eta ekonomian dituen ondorioei heldu behar zaie. Politikak eskatu behar dira prebentziotik. Aipatu du lehenengo ministro britainiarrak eromenaren gainean ezarritako zerga. Gizarte zibilaren ekimenek politika publikoekin parez pare ibili behar dute.

## 5. Eskakerak eta galderak.

Aurreko gogoeten ondoren, Lide Amilibiak eskaeren eta galderen txanda ireki

du.

**Begoña Pablosek** iragarri du, ekainaren 15ean, “Zahartzaroko abusu eta tratatu txarren kontzientzia hartzeko munduko eguna” izanik, Zahartzaroa erakundeak jardunaldia antolatu duela, eta bertara gonbidatu ditu hemen diren guztiak.

**Txema Odriozolak** iradoki du, Gobernantza +65 ekimenaren ondorioak atera ahala, interesgarria litzatekeela lantalde bat osatzea, Adinekoen Kontseiluaren proposamen bat egin ahal izateko.

Beste galde-eskerik ez izanik, etorri izana eskertuz bertan direnei, Lide Amilibiak amaitutzat eman du bilera, eguerdiko 12:15 direla.

IDAZKARIA

BATZORDEBURUAK O.E.